



Nerea Txapartegi, Iñaki Salvador, Josetxo Silgueiro eta Marisol Bastida, atzo Donostian. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Donostiako Udalak Mikel Laboaren lana aitortuko du musikaren Adarra Sariarekin

Adarra Saria euskal musikan erreferente izandako musikarien ibilbidea goraiatzeko garaikurra izango da, eta aurten eskainiko du lehen aldiz Donostiako Udalak. Mikel Laboaren lana aitortuko dute lehen edizioan.

Nagore BELASTEGI | DONOSTIA

Ekainaren 21ean ospatuko den Musikaren Nazioarteko Egunarekin bat eginik, Donostiako Udalak euskal musikan erreferente izandako musikari bati Adarra Saria emango dio aurtengoan lehen aldiz. Hain zuzen ere, Mikel Laboa aukeratu dute lehendabiziko saritu gisa, sariketaren oinarrietan jasotako bost ezaugarriak betetzen dituela-eta (hurrengo urteetako sarituek ez dituzte zertan ezaugarri guztiak bete beharko).

Mikel Laboa irabazle «ideal» gisa definitu zuen atzokoan Nerea Txapartegi Donostiako kultura delegatuak. Izan ere, euskal folklore tradizionalen eragina izan zuen Laboak, herriak bere kantak bereganatu eta belaunaldiz belaunaldiz pasatu ditu, nazioartean ere ezaguna da eta diziplina anitz landu zituen. «Musikari poeta eta poeta musikaria izan zen. Ahots berezia zuen eta letra sakonak. Mito bilakatu zen. Laboaren ekarpena ezin da hitzez adierazi. Zuhaitz baten moduan, adarrak eman zituen eta bere sustraietatik kimu berriak sortu dira», aipatu zuen Txapartegi.

Mikel Laboa dagoeneko gure artean ez dugunez, saria bere emazte Marisol Bastidak jasoko du, Juan Karlos Izagirre alkatearen eskutik. «Mikel euskal musika garaikidearen ordezkari goren delako aipatu dute, baina nik uste dut sari hau berak bezainbeste edo gehiago merezi duten beste musikari garaikide batzuk

BOST EZAUGARRI

Adarra Saria eskuratzeko ezaugarriak bost dira, eta Laboak bostak betetzen ditu: euskal folkloreak eragina izatea, kanta herrikoiak lantzea, belaunaldi desberdinek ezagutzea, nazioartean ezaguna izatea eta diziplina anitz jorratzea.

ere badaudela, estilo askotakoak gainera», nabarmendu zuen Bastidak, saria eskertuz.

Gutxiegi aztertutako mitoa

Mikel Laboari musikarekin saia-kerak egitea gustatzen zitzaion, tartean baita musikari gazteekin ere. Agian, horregatik iritsi da bere musika belaunaldi berrietara ere. Sariaren iragarpenean ez zi-

ren falta izan agertokietan bere ondoan hainbat eta hainbat urte emandako musikari eta lagunak: Iñaki Salvador pianista eta Josetxo Silgueiro saxofonista. Salvadorrek hartu zuen hitza: «Azken bost urteetan, batez ere azken hilabeteetan, Mikel, Josetxo eta hirurok zein lagun onak ginen aipatzen dut etengabe. Ez da harrizkoa bere heriotzak ziklogenesi hau eragitea. Bere lagunak ginenez, jasotzen dituen sari guztiak pozgarri zaizkigu, eta, berari buruz berriro hitz egiteak zerbaiterako balio badu, bere lana aldarrikatzeko da. Nereak [Txapartegi] aipatu du 'mito' bat zela. Agian goizegi egin dugu mito, elezahar, eta bere dozena erdi kanta besterik ez ditugu ezagutzen. Uste dut bere lana ez dugula oraindik nahikoa aztertu».

Ekainaren 21eko Musikaren Nazioarteko Egunaren ospakizuna musikaz beteta egongo da, nola ez. Laboaren omenezko 40 minutuko bi emanaldik osatutako ikuskizuna izango da tartean. Lehen zatia Laboaren lana ondo ezagutzen duten musikariek eskainiko dute, tartean Salvador eta Silgueiro. Beraiekin batera Ainara Ortega igoko da taula gainera abestiei ahotsa jartzera, eta Laboaren kantak oinarri hartuta hainbat emanaldi burutu dituen Kukai dantza taldea ere gonbidatu dute. Bigarren zatirako Laboaren lana ezagutu bai, baina musikari donostiarrekin harreman zuzenik ez duen talde bat aukeratu dute: Delorean.

Larrabetzu utzi eta Zarautzen burutuko da aurtengoan Literatura

GARA | BILBO

2009tik Larrabetzun garatu izan den Literatura jaialdia Zarautzen ospatuko da aurten, maiatzaren 30etik ekainaren 1era arte, antolatzaileek prentsa ohar baten bidez aditzera eman dutenez.

Euren aburuz, Larrabetzun bost urte eman «eta mugarririk finkatu ostean, are gehiago zabaltzea» dagokie. Arrazoi estrategiko horri segituz, zera adierazi dute antolatzaileek: «Euskarazko literaturak bere adierazpide anitzetan, aste-buru beterako proposamenak ditu, baita askoz gehiagorako ere, Literaturian zein beste ekitaldi batzuetan aski frogatu dugunez, eta Larrabetzu baino plaza egokiagoa behar du». Plaza horren balizko baldintzak ere zerrendatu dituzte: «Literaturarekin harreman estua izango duena; bertako lantaldea sortzeko

aukera eskainiko diguna; ekitaldiak antolatzeko beharrezko azpiegitura izango duena; salmentan eragin nabarmena izan eta argitaletxeen urteko argitaratze egutegia baldintzatuko duena; diru laguntza eskaeretan itotzera behartuko ez gaituena; erakunde publikoen neurriko babes izango duena, bai ekonomikoki bai egitasmoarekin bat eginenez; Euskal Herri osoko edozein zalerentzat eskura dagoena (garraio publikoaren bidez zein autoz); jan, edan zein lo egiteko aukera anitzak eskain ditzakeena». Euren ustez, «ezaugarri horiek guztiak» betetzen ditu Zarautzek.

Bukatzeko, azken bost urteotan Literatura jaialdian parte hartu duten guztiei «Larrabetzuko herritarren zein Literatura Eskolaren ize-nean, zorionak eta eskerrak» eman nahi izan dizkiete antolatzaileek.

ROCK Y DESIERTO

Niña Coyote eta Chico Tornado inician en breve una gira por EEUU

Ursula Strong y Koldo Soret, Niña Coyote eta Chico Tornado, tienen gira estadounidense a la vista. El 11 de abril abren rura en Nuev York junto a Cojoba y Eleventh Hour. Tras unos días de viaje y "vacaciones" la pareja llegará el 16 a la singular San Francisco, donde les esperan Station & The Monster y Tiger Honey Pot. Sin salir de California, el 24 estarán en Palm Desert, donde compartirán escenario con Waxxy (quienes ya han tocado en varias ocasiones por Euskal Herria), y Gilded Flicker, la noche más lisérgica. Y de nuevo desierto hasta llegar a la "isla" de Las Vegas el 25, con actuación junto a The Swamp Gospel. El dúo acaba de publicar su álbum debut en vinilo negro, antes en color rojo.

CONCURSO

Rockein! ya cuenta con finalistas: The Weapons, Larry Bird y Arana

El pasado enero, organizado por el Ayuntamiento de Basauri en colaboración con los municipios de Galdakao, Arrigorriaga y Urduña dio comienzo el plazo de inscripción de la segunda edición del concurso pop-rock. The Weapons, Larry Bird y Arana, los finalistas de contrasta calidad, actuarán el 3 de mayo en el Social Antzokia de Basauri, en una jornada en la que también se podrá ver a Highlights, Hilo Rojo y Maider Legarreta, quienes optarán al premio a la Mejor Banda Local.

BILBOROCK

Abierto el plazo de inscripción de la 26 edición del concurso Villa de Bilbao

El concurso Pop-Rock Villa de Bilbao abre el plazo de inscripción de su 26 edición, donde repartirá un total de 20.700 euros en premios. El concurso está dirigido a jóvenes europeos de entre 18 y 35 años y se divide en tres modalidades: Pop-Rock, Metal y Electrónica y Otras Tendencias. La organización entregará un premio de 5.000 euros al primer ganador de Pop-Rock y de Metal, mientras que el vencedor de Otras Tendencias recibirá 2.200 euros. El plazo está abierto hasta el 15 de mayo, a través de la página www.bilbao.net/bilborock En total, y desde setiembre, actuarán 38 bandas en Bilborock.